

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun zehatzei buruzko ikasketen gidaliburua

Ikasketa Planean adierazitakoa:

Lan Harremanen hainbat arlotan era egokian negoziatzea (9. zk.).



1. maila: 9. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Lan eta sozietate arloei loturiko iturri juridikoak egoki identifikatzea eta aplikatzea, proposatzen diren kasuen ebazpenean era egokian eta gidatuan negoziatzeko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Adierazleak	Ikaskuntza emaitzak
<ol style="list-style-type: none">1. Egungo gizarteko antolakuntza juridikoak identifikatzen ditu.2. Gai da bereizteko antolakuntza juridikoen funtzionamendua.3. Enpresa erakundeak bereizi eta beren harremanetan sortzen diren gatazkak identifikatzen ditu.4. Egoera zehatzak ebazten ditu, zuzen erabilita kode arauemaileak, datu baseak eta beste baliabide material batzuk.5. Aholkularitza eskaintzen die lan kontratuetan parte hartzen duten aldeei.6. Aholkularitza eskaintzen die enpresa eta/edo langileei kasu zehatzetan aplikatu daitezkeen erakunde juridiko-laboralei buruz.	<ol style="list-style-type: none">1. Merkatuan dauden merkataritza sozietate edo ekonomia sozialeko sozietate eredu juridikoak identifikatzen ditu.2. Sozietateen funtzionamendu organoak bereizten ditu, baita haien barnean sortzen diren lan harremanei dagokienez dituzten eskumenak eta funtzio juridiko-ekonomikoak ere.3. Gai da aholkuak emateko enpresa ingurunea osatzen duten instituzioei (<i>stakeholders</i>: langileak, akziodunak, sindikatuak, gizarte ingurunea), lan harremanen arloan sortzen diren eztabaidak bideratuz.4. Gai da egoera zehatzak ebazteko, baliabide materialak zuzen erabilita (kode arauemaileak, datu baseak, etab.).5. Gai da aholkularitza eskaintzeko lan kontratuetan parte hartzen duten aldeei, eztabaidak bideratuz eta horiek konpontzen lagunduz.6. Gai da aholkularitza eskaintzeko enpresa eta/edo langileei kasu zehatzetan aplikatu daitezkeen erakunde juridiko-laboralei buruz.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Lan Zuzenbidea eta Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak gaitasun hau garatu eta ebaluatzen dute.

4. ZEREGINAK

- Kasu praktikoak aztertzea, dokumentu juridiko-laboralak idaztea eta antzeko zereginak egitea, alde aurretik ikasleei emango zaien informazio adierazgarritik abiatuta.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Lan Zuzenbidea eta Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak kontuan hartzen dute gaitasun hau beren ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen dute.

Lan Zuzenbidea:

Irakasgai honetan kontuan hartzen dira 4., 5. eta 6. adierazleak, eta ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen da. Adierazleak aintzat hartzen dira ikasleen zereginak baloratzeko. Hala ere, ebaluaziorako portzentajea ez da berbera, eta zeregin zehatzaren mende dago: kasu praktikoak, lan dokumentuak sortzea... Ikasleei informazio hau ematen zaie jarduera bakoitza egin aurretik.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Gaitasunaren ebaluazioa era globalean egiten da eta irakasgaiaren amaierako notaren % 25 da.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun honen lehen 3 adierazleak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez, eta 3 adierazleak berdin baloratzen dira (hots, pisu osoaren 1/3 adierazle bakoitzak).

Gaitasuna ebaluatzeko, testuinguru sozioekonomiko edo problema berri bat aurkezten zaie lan taldeei, ebatz dezaten; jardun gidan oinarrituta, taldeak informazio juridiko-ekonomikoa bilatzen du, hainbat iturritan, problema ebatzeko; gutxienez eztabaida bat antolatzen da klasean lan talde bakoitzeko, problemaren ebazpenean adostasunera heltzeko; eta problemaren bateratze lana egiten da, eta ahozko azalpena taldeko ideien bozeramailearen bitartez.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren amaierako notaren % 1 da. Gaitasun osoaren balorazioak, beste gaitasunekin batera, irakasgaiaren amaierako notaren % 10 hartzen du.

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

2. maila: 9. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

6. MENDERATZE MAILA

3. **Negoiazio prozesu baten, haren garapen eta amaieraren, simulazio proiektua burutzea.**

3. Negoiazio prozesu baten, haren garapen eta amaieraren, simulazio proiektua burutzea, era erdi-autonomoan.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

7. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
<p>1. Gatazkei behar besteko kontrol emozionalaz ekiten die, inguruan duen egoera aztertzeko.</p> <p>Gatazkei emozioak kontrolatuz eta egoera aztertuz aurre egiten ikasten du.</p>	<p>Gatazka iturriak aztertzen eta ebaluatzen ditu, aldeen arteko tentsioak eta botere harremanak artikulatuz.</p> <p>Gatazka iturriak ebaluatzen hasten da, aldeen arteko tentsioak eta botere harremanak artikulatuz.</p>
<p>2. Gatazkaren dimentsio positiboa eta eraikitzailea baloratzen du.</p> <p>Gatazkaren dimentsioa era erdi-autonomoan baloratzen du.</p>	<p>Gatazkaren ebazpenean helburuak betetzera zuzendutako plan estrategikoa ezartzen du.</p> <p>Gatazka konpontzera zuzendutako plan estrategiko bat ezartzen du era erdi-autonomoan.</p>
<p>3. Besteen beharrak, interesak eta posizioak ulertu eta kontuan hartzen ditu.</p> <p>Ulerkorra da eta kontuan hartzen ditu besteen beharrak, interesak eta posizioak.</p>	<p>Bi aldeentzat irtenbide egokia lortzeko jardun taktikoak prestatzen ditu.</p> <p>Lagunduta, bi aldeentzat irtenbide egokia lortzeko jardun taktikoak prestatzen ditu.</p>
<p>4. Asertibitatea eta estrategia erabiltzen ditu bere posizioen plangintzan eta defentsan.</p>	<p>Negoiazio prozesuaren amaiera zehazten du, baita akordioaren idazketa eta sinadura ere.</p>



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Asertibitatea eta estrategia erabiltzen ditu, era erdi-autonomoan, bere posizioen plangintzan eta defentsan.

Lagunduta, negoziazio prozesuaren amaiera zehazten du, baita akordioaren idazketa eta sinadura ere.

8. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa irakasgaiak gaitasun hau garatu eta ebaluatzen du.

9. ZEREGINAK

- Talde txikian lan egiteko prestatzea eta orientatzea.
- Irakasgaiarekin zerikusia duten hurbileko eta kanpoko informazioak bilatu eta iragazteko prestatzea.
- Txostenak, programazioak eta plangintzak egiteko behar den informazioa kritikoki baloratzea.
- Antolakuntzen egoera sistemikoan sakontzea.
- Txostenak egiteko prestatzea.
- Aho azalpenerako prestatzea, bai bakarka bai taldean.
- Eztabaida irekiak eta zuzenduak egitea.
- *Brainstorming*-erako eta *Role Playing* ariketetarako prestatzea.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

10.EBALUAZIO SISTEMA

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez, eta adierazle bakoitzaren pisua honako hau da:

1. adierazlea: 0,25
2. adierazlea: 0,25
3. adierazlea: 0,25
4. adierazlea: 0,25

Gaitasunak irakasgaiaren kalifikazioan duen pisu globala 0,20 da.

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

3. maila: 9. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

MENDERATZE MAILA:

Lan arloan sortzen diren negoziazio eta gatazka prozesuak definitzea, identifikatzea eta baloratzea

1. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Adierazleak	Ikaskuntza emaitzak
<ol style="list-style-type: none">1.- Lan harremanen alor soziologikoko kontzeptu teorikoak menderatzen ditu.2.- Gai da bereizteko hurbilpen teoriko konplexuen artean.3.- Egoki konparatzen ditu hurbilpen eta korrante teorikoak.4.- Arrazoibide propio konplexuak lantzen ditu, emandako material teorikoen onarpen eta/edo kritikatik, norberaren esperientziatik eta ikasleen eta irakaslearen ekarpenetatik abiatuz.	<ol style="list-style-type: none">1. Gai da lan harremanen nozio teorikoak definitzeko, eta desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatzeko, baita haien ezaugarri garrantzitsuenak adierazteko ere (honako hauek bezalako kontzeptuak: lana, enplegua, lan harremanak, sindikalismoa, lan merkatua, enpresa, negoziazioa, arbitrajea...).2. Gai da bere bizi esperientzia kokatzeko aztertutako korrante teorikoetan.3. Lan dinamikien (lanaren antolakuntza, lan merkatua, sindikalismoa) irakurketa politikoa –makro eta mikro– garatzen du, ikuspegi kritikotik.4. Bere ikuspegia aberasten du, eztabaidatuz eta aurkako posizioak kontuan hartuz, adostasunera heldu arte.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Lan Harremanen Teoria eta Egitura

3. ZEREGINAK (zereginen idazketa generiko bat eman).

Irakasgaiaren edukien (teoria) azalpen publikoa (ikasgela birtualean ere bai) eta haiei buruzko eztabaida: kontzeptuak eta korrontekak.

Lana 4-5 laguneko taldeetan, galdetegi bati erantzunez (denbora kudeaketa, ahaleginaren barne negoziazioa eta konpromisoa eskatzen ditu). Ekarpen teorikoen hurbilpen kritiko bat baloratzen da bereziki.

Gai espezifikoetarako buruzko eztabaida, ikasgelako taldeen artean, honako hauek baliatuz: bideo batetik lortutako informazioa, Interneteko bilaketak, testuak eta bizi esperientzia.

4. EBALUAZIO SISTEMA:

Lan Harremanen Teoria eta Egitura irakasgaiak adierazle hauek ebaluatzen ditu: 1.- Lan harremanen alor soziologikoko kontzeptu teorikoak menderatzen ditu. 2.- Gai da bereizteko hurbilpen teoriko konplexuak. 3.- Egoki konparatzen ditu hurbilpen eta korronte teorikoak. 4.- Arrazoibide propio konplexuak lantzen ditu, emandako material teorikoen onarpen eta/edo kritikatik, norberaren esperientziatik eta ikasleen eta irakaslearen ekarpenetatik abiatuz. Adierazle bakoitzak % 25eko pisua du.

Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisua % 15ekoa da.

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. maila: 9. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

11.MENDERATZE MAILA

Zeregina: Kopiatu "Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetatik.

12.IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Aipatutako "Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetan, gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzeko ikaskuntza emaitzak agertzen dira.

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

1. **Irakaskuntza emaitzak homogeneousatzea.** Helburua da maila bakoitzeko ikaskuntza emaitzak islatzea, irakasgaiaren araberrako taxonomia gaindituta. Zenbait kasutan, nahikoa izango da irakasgai bakoitzeko ikaskuntza emaitzak gehitzea. Beste batzuetan, hobe izango da emaitzak berriro biltzea. Esate baterako, irakasgai batek "A" eta beste batek "B" aztertzen badu, ikaskuntza emaitza hau izan daiteke: "A eta B" aztertzen ditu.
2. **Ikaskuntza emaitzetarako adierazleak zehaztea.**
3. **Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak taula batean islatzea.**



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK

13.GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK.

Zeregina: Kopiatu "Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetatik.

14.ZEREGINAK

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

1. Gaitasuna ebaluatzeke zereginak zehaztea.
2. Gaitasuna modu homogeneo eta sintetikoan garatzeko lagungarriak diren irakasgai guztien zereginak islatzea.

15.EBALUAZIO SISTEMA

Gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzaren zeregina: haren ebaluazio sistema deskribatzea, honako hauek adierazita:

1. Irakasgaiaren izena.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. Ebaluatzen dituen adierazleak. Irakasgai bakoitzak, ebaluatzeko, oinarritzat har ditzake gidaliburu honen 2. puntuari adierazitako adierazle guztiak edo horietako batzuk, eta beste baten bat ere gehi dezake. Mailan gaitasuna garatzen duten irakasgai guztiek 2. puntuari adierazitako adierazle guztiak erabiltzen dituztela bermatu behar da.
3. Gaitasuna ebaluatzean, adierazle bakoitzari emandako garrantzia.
4. Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.
5. Komenigarritzat jotzen bada, zereginei eta ebaluazioari lotutako gainerako alderdiei buruzko informazio osagarria eman daiteke.

Gidaliburua amaitzeko, graduko gaitasun zehatz guztien gidaliburuetarako komunak diren paragrafo hauek ageri dira:

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.